




# ARRASATEKO BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA

---

## II. PLANA 2024 - 2027



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**AURKIBIDEA**

**00**

**04 \_\_\_\_\_ SARRERA**

**06 \_\_\_\_\_ OINARRIZKO PRINTZPIOAK**

**08 \_\_\_\_\_ HELBURUAK**

**10 \_\_\_\_\_ EKINTZAK**

- 11 \_\_\_ EKARPENAK JASO
- 12 \_\_\_ ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK
- 13 \_\_\_ HERRITARREI HARRERA EGITEA
- 15 \_\_\_ ANIZTASUN SAREA
- 16 \_\_\_ FORMAZIOA
- 18 \_\_\_ HIZKUNTZA ANIZTASUNA
- 19 \_\_\_ EUSKARA ETA HEZKUNTZA
- 21 \_\_\_ HAURRAK ETA GAZTEAK
- 22 \_\_\_ HIRUGARREN ADINA
- 23 \_\_\_ ESPAZIO BERRIAK SORTU ETA INDARTZEA
- 24 \_\_\_ PLANAREN DIFUSIO ETA DIBULGAZIOA
- 25 \_\_\_ ETXEBIZITZA
- 30 \_\_\_ ERROLDA SOZIALA
- 31 \_\_\_ ENPLEGUA
- 33 \_\_\_ GENERO ANIZTASUNA
- 34 \_\_\_ ELKAR EZAGUTZA

**36 \_\_\_\_\_ PLANAREN BALORAZIOA**

**SARRERA**

**01**

Jarraian, Arrasateko Udaleko II. Bizikidetza eta Aniztasun plana aurkezten da, 2024 eta 2027 urte bitartean garatzekoa. Lehenengoa 2020-2023 bitartean garatu da, eta aurrerapauso garrantzitsuak eman diren arren, plana bere osotasunean garatzeko, ez da posible izan udal sail guztietan eman beharreko zehar lerroen oinarriak lantzea, txertatzea, finkatzea eta errotzea.

Urteen poderioz eta, bereziki, I. Plana jarraituz, horretan eraikitakoaz eta ikasitakoaz abiatuta, Bizikidetza eta Aniztasunaren II. Planaren helburua izango da giza eskubideekin konprometitutako herriaren eraikuntzan sakontzea, aniztasunean oinarritutako bizikidetza bermatzeko abiapuntu gisa.

Lehenengo planak aniztasun kulturean eta kulturen arteko bizikidetzan oinarritutako ekintzak planteatzen zituen. Azken urte hauetan elkarte eta eragile hainbatekin lanean aritu izanak eraman gaitu aniztasuna modu zabalago batean ulertzera. Kolektiboek eskatzen dute beren eskubideak aitortzea eta beren berezitasuna berrestea, hainbat dimentsiori dagokionez; hala nola etnia, kultura, hizkuntza, erlijioa, ideologia, desgaitasuna, generoa eta abar.

Horrela, Bizikidetza eta Aniztasunerako 2024-2027ko II. Planak aniztasun mota baino gehiago barne hartu nahi ditu, giza eskubideak oinarri izanda. Etorkizunean gizarte justuago, kohesionatuago bat eta aukera berdintasunean oinarritutako bat irudikatzeko eta bide horretan aurrera egiteko, hura osatzen duten kideen arteko mugikortasun bertikala sustatu behar dugu, eta horretarako, ezinbesteko baldintza da tratu berdintasuna izatea eta diskriminaziorik ez izatea.

Bizikidetza eta Aniztasunerako II. Planaren garapenak eraikuntza parte hartzailea du oinarri, eta interseksionalitatea izango du printzipio gidari. Interseksionalitatea da modu bat desberdinkeriei begiratzeko eta horiek ulertzeko, pertsonen errealitateak eta premiak kontuan hartzen dituen, pertsona horiek hainbat desberdinkeria ardatzen inguruan duten tokiaren arabera direla: klase soziala, desgaitasuna, adina, sexu joera eta genero identitatea, jatorria, erlijioa eta abar. Desberdinkeria ardatz horiek elkarri lotuta jarduten dute, eta zapalketa egoera espezifikoak sorrarazten dituzte, testuinguru bakoitzaren arabera. Ildo horretan, ikuspegi horrek errealitatearen analisi sinplifikatuak saihesten ditu, eta modu osatuagoan ikusarazten eta jorratzen ditu desberdinkeriazko egoerak. Zeharkako ikuspegiak ziurtatu egiten du administrazioak koherentzia bati erantzungo diola bere ekintzetan. Sailen arabera ikuspegi gaitzizkoak berekin dakar konpromiso kolektibo bat egotea eta erakundeko koordinazioan aurrera egin nahi izatea.

**OINARRIZKO  
PRINTZIPIOAK**

**02**

**01** — **Tratu berdintasuna eta diskriminazio ezaren printzipioa:**  
guztion tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza, aukera-berdintasuna bermatzea.

**02** — **Desberdintasun eskubidearen eta errespetuaren printzipioa:**  
aniztasuna aitortu eta baloratzea, besteak errespetatzea, desberdintasunaren adierazpen askatasuna. Benetako ezagutza ematea, desberdinak diren pertsonak eta kolektiboak ondo ezagutzea.

**03** — **Interakzio positiboaren printzipioa:**  
harremanak modu aktiboan sustatzea. Tolerantzia eta enpatia sustatzea, jarrera positiboak eta errespetuzkoak. Interakzio sozialerako espazioak eraikitzea.

HELBURUAK

03



■ **Helburu nagusia:**

Aniztasuna aitortuz, herritarren ongizatea eta elkarren arteko bizikidetza positiboa ahalbidetzeko, zaintzen duen herri bat eratzea eta garatzea.

■ **Helburu zehatzak:**

- Udal mailan aniztasunaren inguruko zeharkakotasuna bultzatu, INTERSEKZIONALITATEA. Aniztasunaren begirada txertatzea gizarte arlo guztietan.
- Aniztasunaren kudeaketan, erronkei heltzea gure gizartearen hazkunde eta aurrerabide prozesuaren parte gisa. Herritarren eskubideak berdintasunez baliatzeko aukera emango duen egungo eta geroko gizarte eraikitzea, ekitatea sustatu, pertsona guztientzako aukera berdintasuna sustatu. Herritartasun inklusiboaren ikuskera ahalbidetu.
- Bizikidetzaren kultura partekatzea, elkartasunean, erantzunkidetasunean eta pluraltasunaren, giza eskubideen eta berdintasunaren defentsan oinarrituta.
- Batasun sozial eta politikoari eustea, gehiengo demokratikoaren pisua nabarmendu.
- Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea, erantzunkidetasunaren printzipioa sustatzeko.
- Aniztasunari erantzun egokia, modu bateratuan eta solidarioan erantzun. Gure gizartean ematen diren askotariko ezaugarriak kontuan hartzea; generoarengatik, sexu orientazioarengatik, gaitasun aniztasunarengatik eta beste hainbat arrazoiengatik ematen direnak.

**EKINTZAK**

**04**

## 4.01 \_\_\_\_\_ EKARPENAK JASO

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.1.1 Arrasate inklusiboagoa bilakatzeko, Udal sail guztien ekarpenak jasotzea eta horiek abiaraztea.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Udal sail guztiak (teknikari zein arduradun politikoak).   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | <ul style="list-style-type: none"><li>• Behar bereziak dituztenei bizi errazteko ekintzak/hobekuntzak jasoko dira: Nola egin dezakegu Arrasate inklusiboago bat gure departamentutik/arlotik?</li><li>• Aniztasunaren kudeaketa ikuspegi intersektzionala erabiliz egiteko, udal teknikariei eta zinegotziei formakuntza eman.</li><li>• Ikuspegi intersektzionala aplikatzeko, testuinguru bakoitzean gailentzen diren ezberdinkeria ardatzak identifikatzea.</li><li>• Ekintza egingarriak proposatzea, txikitasunetik abiatuta.</li></ul> |
| <b>HELBURUA</b>              | <ul style="list-style-type: none"><li>• Aniztasunarekin eta tratu berdintasunarekin konpromisoa hartu eguneroko lanean.</li><li>• Udal mailan aniztasunaren inguruko zeharkakotasuna bultzatu, intersektzionalitatea. Aniztasunaren begirada txertatzea gizarte arlo guztietan.</li></ul>  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Zenbat ekintza landu diren zeharkakotasunez.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Arduradun politikoak, Aniztasun Teknikaria.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa.  |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Lehenengo urtean: formazioa eta ekarpenak jasotzea.<br>2 eta 3 urteak: sailtako urterako ekarpen ezberdinak.   |

## 4.02 \_\_\_\_\_ ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.2.1 Elkarbizitzaren alde eta diskriminazioaren aurkako adierazpen instituzionalak gauzatzea eta herritarrak horietara batzeko deia egitea.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Udal sailetako pertsonal politikoa.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | <ul style="list-style-type: none"><li>• Udaleko osoko bilkuran Aniztasuna eta Bizikidetzaren programa honen inguruko nondik norakoak azaltzea.</li><li>• Pertsonal politikoari konpromisoa eskatzea balio horiek errespetatzeko eta ikuspegi horrekin lan egiteko.</li><li>• Bizikidetzaren positiboaren aldeko aldarrikapenak egin komunikabide, webgune eta sare sozialetan..</li></ul> |
| <b>HELBURUA</b>              | Udaleko talde politiko guztiek, aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren alde eta diskriminazioaren aurkako aldarrikapena egitea, eta ikuspegi horrekin jardutea.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Osoko Bilkurak onartutako deklarazio kopurua.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Udal gobernua.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa.   |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Urtero.<br>Aniztasunen Nazioarteko Egunetan.  |

## 4.03 HERRITARREI HARRERA EGITEA

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.3.1 BAZek eta Udaltzaingoak herritarrekiko harremanetan duten laguntzaile eta bideratzaile lana sustatu eta lantzea. (Harrera zerbitzuarekin elkarlana eta koordinazioa ahalbidetzea).</b>  |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | BAZ, Udaltzaingoa, herritargoa eta herriko eragileak.  |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | <p>BAZ eta Udaltzaingoa lehen frontean daude herritarrekiko harremanetan, askotan lehen harrera beren esku dago, udalaren aurpegia dira. Erantzukizun publikoaren printzipiotik abiatuta, herritarrak laguntzaile eta bideratzaile moduan ikusi behar ditu eta hurbiltzeko beldurrik izan gabe. Horregatik, sail horietan esfortzu berezia egingo da, aniztasunaren baitan, tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza lortzeko. Onarturik denok behar izango dugula horretan laguntza/formazioa/bultzada/...</p> <p>Ezinbestean, horretarako guztirako eta informazioaren fluxu egokia ahalbidetzeko, Harrera Zerbitzuarekin elkarlana eta koordinazioa ere modu paraleloan landu eta bultzatuko dira.</p> |
| <b>HELBURUA</b>              | Herritarrei ikusaraztea BAZ eta Udaltzaingoa edonori irekiak daudela. Herritarrekiko duten hurbileko harreman laguntzailea zein bideratzailea landu eta bultzatzea, tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Artatze kopuruak eta urte barruan ematen diren kexa kopuruaren balorazioa.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Aniztasun teknikaria, BAZeko teknikari arduraduna, Udaltzainburua eta Ekin Emakumeak elkarteak.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa.  |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Planaren iraute denbora osoan.   |

---

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.3.2 Harrera, Orientazio eta Informazio zerbitzuarekin jarraitu eta indartzea.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Udaleko pertsonala, elkarteak, herritarrak.  |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | <p>Erantzukizun publikoaren printzipiotik abiatuta, herrira iristen direnei inklusio soziala errazteko, dituzten kezka, behar eta zalantzei erantzuteko zerbitzua.</p> <p>Erantzun zuzenagoa eta ulergarriagoa emateko asmoz, Harrera Zerbitzuan itzulpen zerbitzua jarriko da. Harrera egiteko espazio duina ahalbidetuko da.</p> <p>Herriko zerbitzuen webgune berria (ongietorriarrasatera.asmoz.org), herritar guztientzat, eskuragarri jarriko da eta etengabe elikatzen eta eguneratzen joango da.</p> |
| <b>HELBURUA</b>              | Harrera, Orientazio eta Informazio zerbitzuaren helburu nagusia da Arrasatera etorri berriak diren pertsonen inklusioan laguntzea, harrera eginez, orientazioa eskainiz eta euskal hizkuntzaren eta kulturaren gaineko sentsibilizazioa landuz.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | 6 hilean behin memoria aurkeztu. (Artatze fitxak eguneratuta eta artatzeak digitalizatuak).  |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Aniztasun teknikaria eta Ekin Emakumeak elkarteak  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa   |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Urte osoan.  |

## 4.04 ANIZTASUN SAREA

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.4.1 Aniztasun mota guztiak (jatorri, genero, gaitasun fisiko zein psikologikoak, eta abar) jorratzen dituzten elkarte, erakunde eta eragileekin koordinatzea eta harremanak mantentzea. ANIZTASUN MAHAIA.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Eragileak, udal pertsonala, instituzioak, elkarteak.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | <ul style="list-style-type: none"><li>Elkartruckerako eta hausnarketarako gunea, komunitate espazioa. Eraldaketa helburu, hausnarketa eta elkarrizketa baliatzen dituen topagunea. Elkar ezagutzea, bakoitzaren lana ezagutzea, erreferenteak, komunikazioa erraztea. Urteko bilerak zehaztea, kronograma mahaiian adostea.</li><li>Giza eskubideetan oinarritutako gizarte inklusioa sustatzeko konpromisoa hartzea.</li><li>Diskriminazioaren prebentzioa eta identifikazioa: Aniztasun mahaiko kideek sortzen diren ekimenen, ekintzen eta ekitaldien berri izatea eta horietan aniztasun ikuspegia txertatzeko proposamenak eskaintzea.</li><li>Desberdintasunean oinarritutako gizarte kohesioa eta bizikidetzaren sustatzeko proiektuak bultzatzea.</li><li>Aukera berdintasuna sustatzea, eta tokiko eremu sozial, kultural eta politikoetan baldintza berdinetan parte hartzea bultzatzea.</li></ul> |
| <b>HELBURUA</b>              | Aukera berdintasunean eta diskriminazio eza oinarritutako gizarte inklusioa sustatzea modu komunitarioan. Konpromiso hori duten pertsonen, erakundeen eta elkarten lan kolektiboa bultzatzea.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Urteko bilerak, ekimenak eta abar.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Aniztasun teknikaria.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa.  |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Urte osoan.  |

## 4.05 \_\_\_\_\_ FORMAIZIOA

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.5.1 Formazioa, aniztasun kontzeptuaren zeharkakotasuna eta kulturartekotasunaren ikuspuntua udal sail guztiekin lantzeko.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Arduradun politikoak eta sailtako teknikariak.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | Agintaldiko formazio jardunaldi bat egitea, bi edo hiru ordukoa, gobernu taldeari eta Udalbatzarrari edo udaleko talde politikoei zuzendua. Urtero formazio saioak egitea, udaleko sailtako pertsonal teknikoari zuzenduak. Kasu bietan, edukiak zuzenduta daude aniztasuna, tratu berdintasuna eta estereotipo negatiboen aurkako borroka lantzera. |
| <b>HELBURUA</b>              | Arrasateko Udaleko politikariak eta teknikariak sentsibilizatzea herriko aniztasunaren errealitatearen inguruan. Tresnak eskaintzea haien eguneroko lanean, herritarrei arreta hobea eskaini ahal izateko.   |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Egindako formazio kopurua eta parte hartzaile kopurua.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Aniztasun teknikaria.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa,  |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Programaren lehenengo urtean, lehen hiruhilekoan.  |



---

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.5.2 Herriko eragileei, beren eginkizunean aritzeko, formazioa ematea aniztasunean, tratu berdintasunean, eta estereotipoen eta aurreiritzien kontrako borrokan.</b>  |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Aniztasun Mahaia, komunikabideak, Hezkuntza eremua, 3. adineko taldeak, aisialdiko hezitzaileak eta abar.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | 2-4 orduko formazio saioak herriko eragileentzat, aniztasuna, elkarbizitza... bezalako gaiak lantzeko. Eragileek beren egunerokotasunean dituzten beharrak asetzen eta zalantzak argitzen lagunduko dioten formazioak proposatuko dira. |
| <b>HELBURUA</b>              | Elkartek eta eragileak sentibilizatzea herriko aniztasunaren errealitatearen inguruan. Formazioa ahalbidetzea, egunerokotasuneko lanean esku-hartzeak hobetzeko.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Egindako formazio kopurua eta parte hartzaile kopurua.  |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Aniztasun teknikaria.   |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila ertaina.  |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Urte osoan.   |

## 4.06 \_\_\_\_\_ HIZKUNTZA ANIZTASUNA

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.6.1 Komunikazio era guztiak kontenplatzea eta ahalbidetzea; piktogramak, itzultzaileak... Ekimenen zabalkundearen hizkuntza gutxituei keinu egitea.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Arduradun politikoak, sailtako teknikariak, komunikabideak, hezkuntza eremua, Aniztasun Mahaia, herriko elkarteak eta erakundeak.  |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | Gizarte baten komunikazio hizkuntza erabili ezean, pertsonak ez dira iristen erabakiak hartzeko, ingurunearekin elkarreraginean aritzeko eta ingurunean eragiteko behar den informaziora. Hortaz, komunikazioa errazteko eta informazio zuzena ahalbidetzeko tresnak aztertu eta ezarriko dira, herritartasun inklusiboa eraiki eta bizikidetzak sustatzeko. |
| <b>HELBURUA</b>              | Hizkuntza guztiak eta komunikazio forma guztiak kontuan hartzea informazioaren zabalkundearen eta ekimenetan, herritar guztiak informazio zehatza eta ulerkorra izan dezaten. Komunikazio efizientea eta argia bermatzea.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Hainbat hizkuntzatan eta komunikatzeko modu bat baino gehiagotan egindako argitalpenen kopurua.  |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Komunikazio arduraduna, OZM+Auzoak, Aniztasun teknikaria.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila ertaina.   |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Urte osoan.  |

## 4.07 \_\_\_\_\_ EUSKARA ETA HEZKUNTZA

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.7.1 Ikasle etorkinetan euskararen ezagutza indartzea, eskolaz kanpoko ordutegian laguntza saioak emanez eta euskaraz aritzeko espazioetara sarbidea erraztuz.</b>                                |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Euskaltegia, Gazteria saila, Txatxilipurdi, ikastetxeak, haur eta gazte etorkinak, eta haien familiak.  |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | Ikastetxeek beharrezko baderitzote, ikasleei euskara zerbitzua eskaintzea eskolaz kanpoko ordutegian.<br>Euskaraz komunikatzeko ekintza ludikoetan, haur eta gazte etorkinen parte hartzea bermatzea. |
| <b>HELBURUA</b>              | Jatorri atzerritarreko haur eta gazteetan, euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzea.   |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Parte hartzaileek eskuratutako konpetentziak jasotzen dituen urteko txostena.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Hezkuntza, Euskara eta Aniztasun sailtako teknikariak.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa.   |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Urte osoan.   |

---

**EKINTZA** 4.7.2 Ikastetxeetan DBH-n gauzatzen den “Bizikidetza Tailerrak” garatzen jarraitu, eta LH-ko azken mailetan garatzen hasi.

---

**NORI ZUZENDUA** Udala, Ikastetxeak, nerabeak eta gazteak.

---

**DESKRIBAPENA** Aniztasunaren aitorpen positiboa egin eta ikasleak gaitu aniztasunaren inguruko ezagutzak, jarrerak eta balio positiboak edukitzeko, gizarte konpromisoko ikaskuntza ahalbidetzeko bidea eraikitzeko. Bizikidetza tailerrak LH-ko azken mailetan lantzen hastea. Tailerra elkarteekin partekatuko da ekarpenak egin ditzaten.

---

**HELBURUA** Ikasleek errealitate desberdinen berri izatea eta aniztasunean hezitzea.

---

**EBALUAZIOA** Ikasleekin eta irakasleekin feed-back-a eta asebetetze inkestak (ikasle, irakasle zein eragile eta dinamizatzailerei).

---

**ARDURADUNA** Ekin Emakumeak elkarte, Udaleko Aniztasun saila.

---

**LEHENTASUNA** Maila handikoa.

---

**INPLEMENTAZIO DENBORA** Urte osoan.

## 4.08 \_\_\_\_\_ HAURRAK ETA GAZTEAK

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.8.1 Bereziki haurren eta gazteen aukera berdintasuna sustatuko da, guztiek gizartean aukera eta eskubide berberak izateko eta ekitatea bermatzeko.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Udala, sail guztietako teknikariak, elkarteak, haurrekin eta gazteekin lan egiten duten entitateak, ikastetxeak.  |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | Herriko haur eta gazte guztiek esparru eta ekimen berdinetan parte hartzeko aukera izatea ahalbidetuko duten jardunbideak garatuko dira. Udalaren babesa funtsezkoa izango da, arazo ekonomikoak direla-eta sarbide arazoak dituzten haurren eta gazteen familiei babes ekonomikoa bermatuz. Diagnostika. |
| <b>HELBURUA</b>              | Haurren eta gazteen aukera berdintasuna sustatzea.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Haurren eta gazteen parte hartzea, bereziki baztertze egoeran daudenak.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Belaunaldienartekotasun saila, Aniztasun saila, Udal Gobernuak.   |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa  |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Planaren iraute denbora osoan.  |

## 4.09 \_\_\_\_\_ HIRUGARREN ADINA

---

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.9.1 Hirugarren adinekoetan begirada aktiboa eragiten duten ekintzak sustatu, landu eta garatzea.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Herritarrak.  |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | 3. adineko pertsona eta elkarteak herriko ekimenetan parte hartzea ahalbidetzea, eta belaunaldien arteko harremanak sustatu eta espazio komunak sortzea.<br>3. adineko pertsonen beharrak eta nahiak kontuan hartzea sortzen diren ekimen eta espazioetan.<br>Bakardadeari aurre egiteko egitasmoetan parte hartzea, eta Aniztasun Mahaitik bultzatzea. |
| <b>HELBURUA</b>              | 3. adineko pertsonak kontuan hartzea herriko dinamika eta eremu guztietan.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Elkarlanean burutzen diren ekintzen inpaktua.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Belaunaldiartekotasun teknikaria, dagokion arduradun politikoa, Aniztasun teknikaria eta dagokion arduradun politikoa.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa.   |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Planaren lehen bi urteetan.   |

---

## 4.10 \_\_\_\_\_ ESPAZIO BERRIAK SORTU ETA INDARTZEA

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.10.1 Gai zehatzak lantzeko espazioak sortzea, momentu bakoitzean sortzen diren beharrei erantzuteko, eragile eta teknikari zehatzekin.</b>  |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Sail guztietako teknikariak, Aniztasun Mahaia, herritar guztiak.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | Sortzen diren ekintzetan, elkarreek antolatzen dituzten ekintzetan, aniztasun begirada txertatzen laguntzeko espazioak. Herriko Aniztasun Mahaiaren eta beste hainbat adituren laguntzaz, aniztasunaren begirada landu, sendotu eta egikaritzea. |
| <b>HELBURUA</b>              | Aniztasun mahaiko kideek, sortzen diren ekimenen, ekintzen eta ekitaldien berri izatea, eta horietan aniztasun ikuspegia txertatzeko proposamenak eskaintzea.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Gauzatutako ekintzen balorazioa egin eta ekintza horien arduradunekin balorazioa partekatzea, eta haien ikuspegia eta ekarpenak jasotzea.  |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Aniztasun teknikaria eta Aniztasun Mahaia.   |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila ertaina.   |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Urte osoan.  |

## 4.11 \_\_\_\_\_ PLANAREN DIFUSIOA ETA DIBULGAZIOA

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.11.1 Udalaren eta herritarren artean plan hau sozializatzeko eta ezagutzeko prozesuak sustatzea: hitzaldiak, webguneak, sare sozialak, eskuorriak...</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Herritar orori.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | Udal teknikari, eragile eta herritar guztiek plan honen berri izatea eta ekarpenak egin ahal izatea.  |
| <b>HELBURUA</b>              | Udalak tratu berdintasunarekiko, diskriminazioaren kontra egiteko eta aniztasunean oinarritutako bizikidetza positiboaren alde egiteko duen konpromisoa ikusgai egin, udal jarduketara eraman eta elkarte zein herritarrak elkarlanera gonbidatzea. |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Planaren aurkezpenak.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Aniztasun teknikaria eta komunikazio arduraduna.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa.   |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Planaren lehenengo urte osoan.  |



## 4.12 \_\_\_\_\_ ETXEBIZITZA

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.12.1 Auzokako banaketa orekatua bultzatzea, bizilekuari dagokionez.</b>  |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Udala, herritarrak.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | <p>Auzo ereduaren azterketa egitea: auzoen adina (auzo batzuetako biztanleria zahartzen doa), familia ereduak, auzoen egoera sozioekonomikoa, hutsik dauden etxebizitzak eta abar.</p> <p>Alokairu sozialeko etxebizitzak ez pilatu auzo berdinean.</p> <p>Irisgarritasuna: desgaitasunen bat dutenen premiei egokitutako etxebizitza babestuen eskaintza ez da nahikoa, eta, beraz, kolektibo horrek oztopoak dauzka bizimodu independentea edukitzeko. Aukerak zabaltzea.</p> |
| <b>HELBURUA</b>              | Herriak dituen etxebizitza beharrei erantzuteko, errealitatea aztertu eta ezagutzea.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Egiten den azterketa eta txostena.  |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Hirigintza, Aniztasun teknikaria, OZM + Auzoak.   |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila ertaina.  |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Programaren iraupen denbora osoan.  |

---

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.12.2 Herriko etxebizitza eta eraikin hutsen identifikazioa egin.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Udala, herritarrak.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | <p>Etxebizitza eta eraikin hutsen identifikazioa egin eta horien egoera aztertzea: bizigarritasun baldintzak, neurriak, eraikin mota eta abar. Aztertu beharrekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Familia bakarreko etxebizitzak (tamaina, bizitokia, etxe handiak apartamentu txikietan egokitzeko aukerak...).</li><li>• Eraikin hutsak: etxebizitzak zirenak edo beste jarduera batzuk izan dituztenak.</li><li>• Etxebizitza parke publikoa handitzeko ahalmena edo aukera.</li></ul> |
| <b>HELBURUA</b>              | Herriak berak dituen baliabideak probestea, auzo zein eraikin hutsak biziberritzea eta bizileku duinak eskaintzeko aukera bermatzea.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Egiten den azterketa eta txostena.  |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Hirigintza, Aniztasun teknikaria, OZM + Auzoak.   |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila ertaina.  |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Planaren iraute denbora osoan.  |

---

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.12.3 Txaeta: bizikidetza sustatu eta estigma negatiboa kentzeko ekintzak bultzatzea.</b>  |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Herritarrak.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | <p>Auzokideak dira, praktikatik eta orainaldi komunitik abiatuta, norberaren jatorria, mundu ikuskera edo ezaugarriak edozein izanik ere, lurralde bat partekatzen, habitatzen eta zehazten duten eta lurralde horri bizitza ematen dioten pertsonak.</p> <p>Auzo askotan identitate komun bat dago, eta identitate horrek balio du komunitate ekintzarako, elkarreraginerako eta elkarren zaintzarako oinarria izateko.</p> |
| <b>HELBURUA</b>              | Txaetan bizikidetza sustatu eta estigma negatiboa kentzeko ekintzak bultzatzea.  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Egiten diren ekintza kopurua.  |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Etxebide, Udala.   |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila ertaina.   |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Planaren iraute denbora osoan.   |

---

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.12.4 Alokairuak ahalbidetzeko sentsibilizazio kanpainak</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Herritarrak, etxe agentziak.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | Informazio/sentsibilizazio kanpainak etxe agentziak eta herritarrei zuzenduta.                                     |
| <b>HELBURUA</b>              | Etxe agentziak eta herritarrak sentsibilizatzea; etxebizitzak alokatzerako orduan aurreiritziei biderik ez ematea. |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Egiten diren kanpaina kopurua eta eragindako inpaktua.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Aniztasun teknikaria eta udal gobernua.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila ertaina.   |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Planaren iraute denbora osoan.   |

---

**EKINTZA** 4.12.5 Aterpetxe ereduaren lanketa.

---

**NORI ZUZENDUA** Herritarrak, Udala eta bailara.

---

**DESKRIBAPENA** Aterpetxe ereduak aztertzea, Arrasateko eta bailarako errealitatera egokitzen den aterpetxe eredu bat landu eta abiarazteko, bailarako beste herriekin elkarlan paralelo baten baitan.

---

**HELBURUA** Aterpetxe duin bat abiaraztea bailaran.

---

**EBALUAZIOA** Aterpetxe ereduaren txostena.

---

**ARDURADUNA** Arrasateko Udala eta Debagoieneko Mankomunitatea.

---

**LEHENTASUNA** Maila ertaina.

---

**INPLEMENTAZIO  
DENBORA** Planaren lehenengo bi urteetan.

## 4.13 \_\_\_\_\_ ERROLDA SOZIALA

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.13.1 Errolda sozialaren lanketa egitea, eta hura gauzatzeko protokoloa sortu eta zabalkundea egitea.</b>  |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Herritar guztiei.  |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | Erroldatzea herritarren oinarrizko eskubidea da; pertsona orori zor zaizkigun oinarrizko eskubideez gozatzeko eta iristeko giltza. Udaleko errolda da udalerrri bateko bizilagunak ageri diren administrazio erregistroa. Erroldako datuek frogatzen dute pertsona hori udalerrian bizi dela eta ohiko bizilekua han daukala. Errolda da administrazio egintza bat, eta betebeharrak gisa ezarrita dago ordenamendu juridikoan. Herritartasuna aitortuz, agerrarazten da biztanlea udalerrri jakin batekoa dela eta haren nortasuna zein den; halaber, erroldak funtsezko eginkizuna du, eskubideak bermatzen baititu eta oinarrizko eskubidez ditugun zerbitzu/prestazio guztietarako (osasunekoak, hezkuntzakoak, gizarte babesekoak eta abarrekoak) sarbidea baita. |
| <b>HELBURUA</b>              | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Errolda eskubidea bermatzea.</li> <li>• Erroldatzeko ematen diren arazoei irtenbidea ematea.</li> <li>• Errolda soziala landu, garatu eta inplementatzea.</li> </ul>  |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Ematen diren errolda sozialen kopuruak.  |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Gizarte langileak, Ekin, Ongizate teknikaria eta Aniztasun teknikaria, idazkaria, jakinarazlea.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa.  |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Planaren lehenengo urtean.   |

## 4.14 \_\_\_\_\_ ENPLEGUA

|                                  |  |
|----------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>                   | <b>4.14.1 Pertsonen errealitate eta gaitasunetara egokitutako formazioa sustatu eta paraleloki eskualdeko egitasmoekin lantzea.</b>                                    |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>             | Herritarrak.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>              | Norberaren gaitasunak indartzea formazio konkretuen bitartez, eta lan merkatu zabalago baterako aukerak zabaltzea.<br>Garapen agenzia herritarrei ezagutzera ematea.   |
| <b>HELBURUA</b>                  | <ul style="list-style-type: none"><li>• Enplegagarritasuna sustatzea.</li><li>• Mankomunitatearekin elkarlana sustatu eta informazio trukaketa ahalbidetzea.</li></ul> |
| <b>EBALUAZIOA</b>                | Mankomunitatearekin egiten diren bilerak.  |
| <b>ARDURADUNA</b>                | Debagoieneko Mankomunitatea eta Arrasateko Udala.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>               | Maila ertaina.   |
| <b>INPLEMENTAZIO<br/>DENBORA</b> | Planaren iraute denbora osoan.   |

---

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.14.2 Langabezian eta eskusio arriskuan dauden herritarrei, lan merkatura sarbidea errazteko tresna eta baliabideak eskaini: formazio saioak.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Herritarrak. Langabezian eta eskusio arriskuan dauden herritarrak.  |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | Lan merkatura sarbidea errazteko, tresna eta baliabide espezifikoen gaineko formazioa eskainiko du udalak: <ul style="list-style-type: none"><li>• Kurrikulumak egiteko formazioa.</li><li>• Lan elkarrizketak egiteko formazioa.</li><li>• Lan merkatura salto egiteko klabeak eta aukerak ezagutzeko formazioa.</li><li>• ...</li></ul> |
| <b>HELBURUA</b>              | <ul style="list-style-type: none"><li>• Lan merkatura salto egiteko ahalduntzea bultzatu eta bermatzea.</li><li>• Lan mundua inklusiorako eta bizitza duin baterako bidea ikusarazi eta zabaltzea.</li><li>• Mankomunitatearekin elkarlana sustatu eta informazio trukaketa ahalbidetzea.</li></ul>                                       |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Formazioetan ematen diren izen-emateen kopuruak eta horietan parte hartzen dutenen asebetetzea.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Debagoieneko Mankomunitatea, Lanbide eta Arrasateko Udala (Ongizate saila eta Enplegu saila).   |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handikoa.   |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Planaren iraute denbora osoan.  |



## 4.15 \_\_\_\_\_ GENERO ANIZTASUNA


---

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.15.1 Feminismoak eta LGTBI+ sailarekin elkarlanean zehar-lerroak sortzeko ekintzak sustatzea.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Herritarrak, Udala eta Aniztasun Mahaia.   |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | Feminismoak eta LGTBI+ sailarekin elkarlanean zehar-lerroak sortzeko ekintzak sustatzea. Horretarako, hausnarketak bultzatzea eta proposamenak egitea. |
| <b>HELBURUA</b>              | Genero aniztasuna zeharkakotasunez lantzea, guztion tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta aukera berdintasuna bermatzeko.                   |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Feminismoak eta LGTBI+ sailarekin egiten diren bilerak eta egiten diren ekintzen inpaktua herrian.   |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Aniztasun teknikaria, Berdintasun teknikaria eta sail bakoitzeko arduradun politikoa.  |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila handia.  |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Planaren iraute denbora osoan.   |

---

## 4.16 \_\_\_\_\_ ELKAR EZAGUTZA

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>EKINTZA</b>               | <b>4.16.1 Elkar ezagutzarako espazioak sortu edo indartzea, eta horien parte hartzea sustatzea herritarren artean.</b>   |
| <b>NORI ZUZENDUA</b>         | Herritarrak, elkarteak.  |
| <b>DESKRIBAPENA</b>          | Egiten diren ekimenak eta proiektuak herritarretan ezagutarazi eta parte hartzea sustatzea (Munduko Arrozak, Bizilagunak, Ipuin Kontaketak, Aniztasun funtzionaleko dantza saioak, Auzoko eta abar). |
| <b>HELBURUA</b>              | Pertsonak ezagutzeko espazioak ahalbidetzea, aurreiritzi eta estereotipoak suntsitzen lagunduko duena, eta harremanak eta sentsibilitatea sortzen lagunduko duena.                                   |
| <b>EBALUAZIOA</b>            | Egiten diren programak eta parte hartzaile kopurua.  |
| <b>ARDURADUNA</b>            | Aniztasun Teknikaria, Aniztasun Mahaia   |
| <b>LEHENTASUNA</b>           | Maila altua.   |
| <b>INPLEMENTAZIO DENBORA</b> | Planaren iraute denbora osoan.   |



**PLANAREN  
BALORAZIOA**

**05**

Ezinbestekoa da Planaren etengabeko ebaluazioa egitea. Horretarako, asmoa da plan ireki bat egitea, hau da, irekita egongo den plan bat behar besteko hobekuntzak, moldaketak eta zuzenketak jasotzeko. Lehenengo urtean, 4 hilero planaren jarraipen eta testea bermatuko duen ebaluazio moduko bilerak antolatuko dira Aniztasun teknikariaren, beharrezkoak ikusten diren arduradun politikoen eta Aniztasunaren Mahaiaren artean, eta, era berean, aldez aurretik, Aniztasun teknikariak, hilabete horietan planean inpaktua eragin duen edo duten ekintzei erreparatuz, ekintza horiek aurrera eramateko ardura izan duten eragileen zein udal teknikarien eta zinegotzien balorazioa jasoko du, Planaren balorazio orokorrari gehitzeko eta kontraste moduan erabili ahal izateko.

Ekintzak eta haien inpaktua baloratzeko, txantiloi edo dokumentu bat sortuko da, egokien ikusten den formaturen batean.

Ekintzak eta horien inpaktua baloratzeko itemak adostuko dira teknikariekin eta eragile guztiekin batera. (Betiere dokumentu ireki bat izango da, moldagarria, zer baloratu eta nola baloratu, eta Plana etengabe ebaluatuz, hura hobetzeko aukera bermatuz).

Egiten den guztia digitalizatzeko, urte amaieran eta planaren azken urtean, aukera emango digu historiko bat egiteko. Illoak eta ekintzak etengabe ebaluatu, eta hobekuntzetarako aukerak erraztu eta zabalduko dira.



**ARRASATEKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN**